



SEGURAKO UDALEKU IREKIAK 2026

BEGIRALEEN IZEN-EMATEA

2026ko UDALEKU IREKletan hezitzaile lanetan aritzeko deialdia luzatzen dizuegu. Hautagaiek bete behar dituzten **ezinbesteko irizpideak** honako hauek dira:

- 1)** 16 urte beteta izatea 2026ko ekainaren 28an.
- 2)** Euskara ezagutza eta erabilera maila altua izatea.
- 3)** Mutiloa, Segura edo Zerainen erroldatuta egotea.

Behin, aurrez aipatutako baldintzak beteta, aukeraketa puntuazio gehien dutenen artean egingo da:

- 18 urte beteta izatea (2 puntu)
- HABE 3. Maila C1, EGA edo baliokidea izatea (2 puntu)
- Seguran erroldatuta egotea (2 puntu)

Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea: magisteritza, pedagogia, psikologia, gizarte-hezkuntza, gizarte integrazioa...

- Gradua izatea (6 puntu)
- Goi-maila izatea (5 puntu)
- Erdi-maila izatea (4 puntu)
- Begirale titulua izatea (6 puntu)
- Koordinatzaile-zuzendari titulua izatea (8 puntu)

* Aipatutako ikasketak burutzen aritzeak titulazioaren puntuazio erdia balioko du.

Kontuan hartuko diren beste puntu batzuk:

- Herriko Gaztelekuan, antolakuntza eta koordinazioan partaide izatea (6 puntu)
- Segurako udako aisialdian aurretik aritu izana (3 puntu)
- Herriko haur eta gazteen gainontzeko aisialdiko ekintzetan parte-hartzen ari direnak (2 puntu)

Lanean hasterako **Udalak antolatutako lan-aurreko formakuntzak osotasunean jaso eta gainditu beharko dira.**

***Berdinketa kasuan, Seguran erroldatuta dagoenak lehentasuna izango du. Segurako artean berdinketa balego, lehenik, generoen arteko oreka bilatzeko gutxien errepresentatuta dagoen generodun pertsonari emango zaio lehentasuna. Hala ere, berdinketa balego, zozketa egingo da (grabatuta).**

Izena emateko bidali curriculum-a eta izen-emate orria beteta gazteriasegura@gmail.com helbidera, **maiatzaren 18rako**. Aurkeztu beharrekoak: izen-emate orria, curriculum-a, titulu edo agiriak, NAN, osasun txartela eta sexu izaerako delituen ziurtagiria. Curriculum-ean jasota dagoena bakarrik baloratuko da.

Aukeratuen zerrenda maiatzaren 29an jakinaraziko da whatsapp bidez izena emandakoen artean.

Seguran, 2025eko maiatzaren 6an.